

## Genevan Giza Eskubideei buruzko Tailerrean parte hartzeko 8 beka eskaintzen dira

UNESCO Etxeak GKEetako langileentzako 8 beka eskaintzen ditu, **“Human Rights Internship Programme”** prestakuntza-tailerrean parte hartzeko, zeina Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluarekin batera egingo baita, Genevan; hau da, **2014ko irailaren 8tik 26ra bitartean** eta, hain zuzen, GEKren 26. bilera-aldia izango da.

Urteak dira programa hau CIGC-ek koordinatzen duela, eta Giza Eskubideen Kontseiluaren bilera-saioen markoan garatzen da. Programa honi esker, NBE sistemak giza eskubideak babesteko dituen mekanismoen funtzionamendu praktikora hurbil gaitzke. Zati bat teorikoa izango da, eta beste bat praktikoa; izan ere, Giza Eskubideen Kontseiluaren hainbat organismotan parte-hartze praktikoa eta presentziala izango dute parte-hartzaileek.

GKEetako langileei bideratuta dago: bereziki Nazio Batuek giza eskubideak babesteko dituzten mekanismoetan gizarte zibilak duen rolean sakondu nahi dutenei eta giza eskubideak beren erakundearen lanean sartzea errazten duten tresnak gertutik ezagutu nahi dituztenei.

**Programa teorikoan puntu hauek ditu:**

### I. NBSK GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO DITUEN MEKANISMOAK: SARRERA OROKORRA

- Itunetatik sortutako organoen funtzionamendua eta GKEek eragiteko dituzten aukerak.
- Giza Eskubideen Kontseiluaren dinamika:
  - Kideak;
  - Erakundeak eta tresnak (*ebazpenak, gomendioak, bilkura bereziak, etab.*);
  - Agenda, programa eta lan-metodoa (*item bakoitzean landutako gaiak*);
  - GKEek parte hartzeko esparruak.

### II. PROZEDURA BEREZIAK

- Tipologia (*errelatore berezia, aditu independentea, IOren ordezkari berezia, lan-taldeak*);

- Printzipioak (*independentzia eta inpartzialtasuna, etab.*);
- "Mandate holders" direlakoak aukeratzeko irizpideak (*esperientzia, independentzia, generoa, etab.*)
- Agintaldi tematikoak eta geografikoak,
- Lan-metodoak (*txostenak, herrialdeak bisitatzea, banakakoen kexei erantzutea, etab.*);
- Giza eskubideen urraketak jakinarazteko prozedura (*banakakoen kexak*);
- Nola parte hartu txostenetan?;
- Mugak;
- Abantailak.

### III. GEKREN WEBGUNEAREN ERABILERA, INFORMAZIOA LORTZEKO ETA LANERAKO TRESNA DEN ALDETIK

- Webgunea, extranet eta intereseko beste webgune batzuk.

### IV. GEKREN ALDIZKAKO AZTERKETA UNIBERTSALA

- Oinarriak (*Nazio Batuen Gutuna, GEDU, tresna lotesleak, NZH, aplikatzekoak diren beste batzuk*);
- Helburuak (*estatu batek giza eskubideen arloan hartutako konpromisoen betetze-mailaren ebaluazioa, baina ikuspegi konstruktiboaz eginda*);
- Sortutako dokumentazioa (*txostenak*);
- Funtzionamendua (*lan-taldea, elkarrizketa interaktiboa, etab.*);
- Produktuak (*gomendiodun txostenak, estatuek hartutako konpromisoak*);
- Berrikuspenaren jarraipena (*GEKren eta nazioarteko komunitatearen rola; lankidetzaren ezeko kasuen berri ematea*).

Hautagaiak aukeratzeko, ebaluazio objektiboa egingo da, **irizpide hauek** kontuan hartuta:

1. Giza eskubideen eta/edo lankidetzaren arloan prestakuntza eta/edo aurretiazko ezagutza frogagarriak izatea.
2. Eskuratutako ezagutzak bere erakundearen barruan txertatzeko aukerak izatea.

3. Euskal esparruko erakunde baten partaide izatea (GKEak nabarmenki), giza eskubideen arloarekin harremanduta.
4. Ingeleseko maila altua: prestakuntza ingelesez da oso-osorik, eta beraz, ezinbestekoa da hizkuntza ongi jakitea.
5. Artikulu bat idaztea, gero UNESCO Etxearen webgunean argitaratuko dena: programan parte hartzen dutenek iritzi-artikulu bat egin beharko dute amaierako lan gisa, euskaraz edo gaztelaniaz izan daitekeena. Gaia ikastaroan landutako eta bakoitzaren erakundearen lanarekin lotutako bat izango da. Honako webgune honetan argitaratuko da: [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org). Gaia parte-hartzailearen eta UNESCO Etxearen artean aukeratuko dute.
6. Diskriminazio positiboko irizpideak: emakumeen eta euskal erakundeetan lan egiten duten Hegoaldeko pertsonen parte-hartzea sustatuko da.

Ikastaroa egiteko beharrezkoak diren materialez gain, **bekak hauek estaliko ditu**: bidaia hegazkinez hotela eta otorduak.

**Parte-hartzaileek prestakuntza-programaren saio guztietan eta UNESCO Etxean egingo den saio batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta amaierako iritzi-artikulua idaztekoa ere, edota bekaren dirulaguntza itzuli behar izango dute.**

Beka eskatzeko, hautagaiaren **CV** (erdaraz, euskaraz edo ingelesez) eta **aplikazio formularioa** (Application Form ingelesez). bidali behar dira.

**Bidaia egiteko datak**, ekainaren azkenengo astean esango ditugu, baina segurazki igandea eta ostirala bitartean izango dira.

**Eskaerak [administracion@unescoetxea.org](mailto:administracion@unescoetxea.org) helbidera bidali behar dira ekainaren 30a baino lehen, "Geneva Beka" erreferentzia aipatuz.**

UNESCO Etxeak uztailaren 7a baino lehen jakinaraziko die aukeratutako pertsonen.

### Informazio gehiagorako:

Jéssica Domínguez – 944 276 432 / [j.dominguez@unescoetxea.org](mailto:j.dominguez@unescoetxea.org)

Diruaguntzailea:

